# XV muestra de cine

# el mundo y los derechos humanos



golem baiona

**Del 11 al 15 de NOVIEMBRE de 2019**

DISEÑO: MAMEN ZUDAIRE

DL NA 2706-2019

Fundación IPES Fundazioa · golem · Fundación FELIPE RINALDI · upna Universidad Pública de Navarra Nafarroako Unibertsitate Publikoa · NOSOLOFILMS · Mugarik Gabe Nafarroa · AMNISTÍA INTERNACIONAL

SUBVENCIONAN / DIRUZ LAGUNDU DUTE

Nafarroako Gobernua Gobierno de Navarra · Ayuntamiento de Pamplona Iruñeko Udala



## LUNES 11 NOV



**SESIÓN 20:00h / 5,00€**

MENORES EXTRANJEROS NO ACOMPAÑADOS / MENAS

# FORTUNA

*Germinal Roaux (Suiza, 106'. 2018)*

### SINOPSIS

**Fortuna** es una niña etíope de 14 años, que no ha tenido noticias de su familia desde que llegó a Lampedusa. Junto con otras personas refugiadas, recibe cobijo para el invierno en un monasterio de los Alpes suizos. Mientras espera una respuesta por parte de las autoridades, se encuentra con **Kabir**, un refugiado del que se enamora. Juntos, mantienen una complicada relación en secreto hasta que un día **Kabir** desaparece.

**GERMINAL ROAUX**, Nacido en Lausana, Suiza, en 1975, este fotógrafo y cineasta autodidacta trabaja exclusivamente en blanco y negro. Desde 1996, ha colaborado como periodista fotográfico durante más de 10 años en revistas como L'Illustré y L'Hebdo. Realizó su primer documental *Des tas de choses* en 2003 sobre la discapacidad mental, al que le siguió *Icebergs* (2017). Su primer largometraje LEFT FOOT RIGHT FOOT llegó a las pantallas en 2013 y ganó numerosos premios. **FORTUNA** su último largometraje ha sido ampliamente galardonado.

### PREMIOS

Ganadora del Oso de Cristal Mejor Película y Gran Premio del Jurado Internacional, Festival Berlín, 2018, Premio de Plata Mejor Película Festival Internacional de Ereván, 2018, entre otros.

### INVITADA
### EIDER JAIME ARIZTEGUI

Trabajadora social e integradora social, máster Universitario en intervención social con individuos, familias y grupos (Upna)

Con título de experta en migración e intervención social (Upna) y miembro del CEASNA comité de ética de atención social de Navarra, con amplia trayectoria en la intervención social con adolescencia y juventud en vulnerabilidad y la intervención con familias en prevención.

Actualmente representa a ZAKAN UTE integrada por 3 cooperativas de iniciativa social (Agintzari, Zabalduz y Kamira) que trabaja en Navarra en la atención a niños, niñas y adolescentes migrantes no acompañados.






## MARTES 12 NOV

**SESIÓN 18:30h / 3,00€**

CINE LOCAL CON
MIRADA INTERNACIONAL

# BORN IN GAMBIA

*Natxo Leuza Fernández (España, 27'. 2018)*

**SINOPSIS**

**Hassan** es un niño que vive en la calle. A su hermano lo acusaron de brujería y lo quemaron vivo delante de él. Su padrastro le dice lleva el diablo dentro, así que huye para que no lo maten. **Hassan** lleva siempre una grabadora con la que nos cuenta como es su vida, la de otros niños y niñas y la de un país bello, pero anclado en peligrosas tradiciones.

**NATXO LEUZA** trabaja como realizador, guionista, montador y postproducción de cine. Tiene una larga trayectoria en el mundo del documental, trabajando en multitud de proyectos en varios países del mundo: Sierra Leona, Benin, Togo, Mauritania, Gambia, Perú, Guatemala, El Salvador, Qatar, Haití, Alemania.

**INVITADO**
**NATXO LEUZA**, director

**PREMIOS**

Ha participado en 42 Selecciones Oficiales, ha sido premiado en 17 certámenes nacionales e internacionales y es candidato a los Goya 2020 como Mejor Corto Documental.



# EL INFIERNO

*Raúl de la Fuente Calle (España, 20'. 2019)*

**SINOPSIS**

**Chennu** cometió con 15 años su primer delito: ser niño de la calle. Y entró en el infierno: Pademba Road. La cárcel de adultos de Freetown. En el infierno manda **Mr.Sillah** y los presos abandonan toda esperanza. **Chennu** consiguió salir tras 4 años. Ahora quiere volver a Pademba.

**RAÚL DE LA FUENTE** es director, guionista y montador. Su largometraje UN DÍA MÁS CON VIDA se estrenó en Sección Oficial en Cannes y ha recibido los premios EFA, Goya y Platino como Mejor Largometraje de Animación, y el Premio del Público en Zinemaldia. NÖMADAK TX, obtuvo el segundo puesto en el Top20 de IDFA, y el premio de Mejor Director Novel en el Festival Internacional de Cine de Guadalajara. Su primer cortometraje documental, *Minerita*, recibió el Goya y estuvo en la shortlist para los Oscar.

**INVITADO**
**RAÚL DE LA FUENTE**, director

**PREMIOS**

Premio al Mejor Cortometraje documental en el Festival de Cine de Varsovia (Warsaw Film Festival) 2019




## MARTES 12 NOV



**SESIÓN 20:00h / 5,00€**

MIGRACIÓN, MULTICULTURALIDAD Y DERECHOS SOCIALES

# UN GATO EN LA PARED

CAT IN THE WALL

*Vesela Kazakova, Mina Mileva (Bulgaria, 92’. 2019)*

**INVITADO**
**RUBÉN LASHERAS RUIZ**

Profesor del Departamento de Sociología y Trabajo Social de la Universidad Pública de Navarra. Sus líneas de investigación se centran en el espacio de las desigualdades y de la exclusión social.

**SINOPSIS**

La vida en una comunidad de viviendas municipales en el Londres del Brexitt se ve agravada debido a la gentrificación. **Irina**, una madre soltera de origen búlgaro que intenta triunfar como arquitecta y se niega a vivir de los subsidios como la mayoría de sus vecinos, lucha sin éxito para convencer a éstos de luchar contra el sistema. Cuando un gato aparece atrapado en su pared, la familia de **Irina** y algunos de sus vecinos entrarán en conflicto.

**MINA MILEVA** se formó como directora de cine de animación en La Cambre, Bruselas, y en la Academia Nacional de las Artes Escénicas y Cinematográficas de Sofía, y trabajó durante más de una década en la industria de la animación británica. **VESELA KAZAKOVA** estudió interpretación y producción en Bulgaria. Sus principales papeles cinematográficos le hicieron ganar prestigiosos premios en Bulgaria y en el extranjero. Juntas han dirigido los largometrajes documentales ZARADI LELIA SNEJE (2008), UNCLE TONY, THREE FOOLS AND THE SECRET SERVICE (2014) y THE BEAST IS STILL ALIVE (2016). **UN GATO EN LA PARED** es su primer largometraje de ficción.




## MIÉRCOLES 13 NOV



**SESIÓN 20:00h / 5,00€**

DERECHOS CIVILES Y POLÍTICOS

# LA DEFENSA, POR LA LIBERTAD

*Pilar Pérez Solano (España, 71'. 2019)*

**SINOPSIS**

Documental que recoge la historia de la Abogacía española desde mediados de la década de 1960 a 1978, con imágenes inéditas y testimonios de prestigiosas abogadas y abogados encarcelados por ejercer su profesión con dignidad, que perdieron su vida asesinados, como sucedió en Atocha 55, que dieron ejemplo de civismo y valentía y que fueron capaces de aparcar las ideologías y elaborar una norma de libertades y de derechos.

**PILAR PÉREZ SOLANO** (Alicante, 1967) directora, productora y guionista de cine con más de veinticinco años de experiencia.

En 1993 se incorporó a Canal+ donde ha sido directora de producción de títulos como *Lisboa, Faca no Coraçao*, premiado en el Festival de Nueva York, *Poeta en nueva York*, nominado a los Premios Emmy, *Auster y Wang* premio del Festival de Nueva York, y un largo etc. A partir del año 2003 inicia también su carrera como directora y realizadora. En el año 2007, crea su propia productora "TRANSIT Producciones S.L.". Sus últimos trabajos como directora y productora han sido: el documental *Murales* seleccionado a concurso en SEMINCI en "Tiempo de Historia" y estrenado en Nueva York y más recientemente, LAS MAESTRAS DE LA REPÚBLICA, que consiguió el premio Goya 2014 a la mejor película documental y LA DEFENSA, POR LA LIBERTAD en 2019.

Así mismo, es miembro de la Academia de Cine; de la Academia Valenciana del Audiovisual; de la Junta Directiva de CIMA y colaboradora del festival de Cine de Cuenca, "Mujeres en Dirección".

**INVITADOS**

**PILAR PÉREZ SOLANO**, directora del documental y **MIKEL BERRAONDO LÓPEZ**, experto en derechos humanos, empresas y DDHH y derechos de pueblos indígenas. Ha trabajado durante más de 16 años con diversas agencias internacionales y ONGs, la protección de los derechos de los pueblos indígenas. Ha litigado en diversos mecanismos internacionales de protección de DDHH casos contra Panamá, Argentina, Paraguay y Colombia. Miembro del patronato de Fundación IPES. Actualmente es director de innovación social en Zabala Innovation Consulting.




**JUEVES 14 NOV**



**SESIÓN 20:00h / 5,00€**

DERECHOS PARENTALES,
INSTITUCIÓN FAMILIAR

# LA HIJA DE UN LADRÓN

*Belén Funes (España, 102'. 2019)*

**INVITADA**
**BELÉN FUNES**,
directora de la película

**PREMIOS**
Concha de Plata Mejor Actriz, Festival de CIne de San Sebastián / Donostiako Zinemaldia 2019, Greta Fernández

**SINOPSIS**
**Sara** ha estado sola toda su vida. Tiene 22 años y un bebé y su deseo es formar una familia junto a su hermano pequeño y el padre de su hijo. Su padre, **Manuel**, tras años de ausencia y al salir de la cárcel, decide reaparecer en sus vidas. Sara sabe que él es el principal obstáculo en sus planes.

**BELÉN FUNES** (Barcelona, España. 1984) estudió en la Escuela Superior de Cine y Audiovisuales de Catalunya y en la Escuela de Cine de San Antonio de los Baños y comenzó a trabajar en la industria del cine como ayudante de dirección y en el departamento de casting en diferentes producciones, al tiempo que se iniciaba como script. **Isabel Coixet** produjo su primer cortometraje profesional, ***Sara a la fuga*** (2015), que recibió los premios al Mejor Cortometraje y a la Mejor Dirección en el Festival de Málaga y fue nominado al Goya. Su segundo corto, ***La inútil*** (2017), fue seleccionado por la SEMINCI de Valladolid y candidato al Mejor Cortometraje en los Premios Gaudí. **LA HIJA DE UN LADRÓN**, inspirado en la historia y el personaje de ***Sara a la fuga,*** es su primer largometraje.




## VIERNES 15 NOV




**SESIÓN 20:00h / 5,00€**

GUERRA EN SIRIA

# FOR SAMA

*Waad al-Kateab y Edwars Watts (Reino Unido 93’. 2019)*

**SINOPSIS**

Una mujer lucha para unir el amor, la guerra y su papel como madre durante cinco años en el contexto de la guerra de Siria. La historia de Waad revela el verdadero dilema al que se enfrenta la protagonista cuando le toca tomar una difícil elección: abandonar la ciudad para mantener a su hija a salvo, aunque eso suponga al mismo tiempo abandonar su propia lucha por la libertad.

**INVITADO**
**JESÚS A. NÚÑEZ VILLAVERDE**

Codirector del Instituto de Estudios sobre Conflictos y Acción Humanitaria (IECAH). Especialista en temas de seguridad, construcción de la paz y prevención de conflictos, con especial atención al mundo árabo-musulmán. Profesor de Relaciones Internacionales en la Universidad Pontificia Comillas. Presidente del Comité Español de la UNRWA (Agencia de las Naciones Unidas para los Refugiados Palestinos).

**WAAD AL-KATEAB**, documentalista galardonada. Se convirtió en periodista ciudadana en 2011, después de que estallaran protestas en toda Siria contra el régimen de Assad, y en enero de 2016 comenzó a documentar los horrores de Alepo en una serie de películas tituladas INSIDE ALEPPO. **FOR SAMA** es su primer largometraje. **EDWARD WATTS**, codirector, cineasta inglés conocido por hacer documentales y películas narrativas. Es conocido por películas como, ESCAPE FROM ISIS (2015) que ganó el Premio Internacional Emmy 2016 para Asuntos Actuales, THE MEGA BROTHEL (2015) y su último trabajo **FOR SAMA** (2019).

**PREMIOS** Premio L’Œil d’Or al Mejor Documental, Festival de Cannes 2019.
Premio del Gran Jurado al Mejor Documental, Festival de Cine SXSW 2019
Premio Mejor Documental, Festival Internacional de Cine de Durban 2019.

# II EDICIÓN DEL CONCURSO DE CORTOMETRAJES ORGANIZADO POR FUNDACIÓN IPES

## DERECHOS HUMANOS, IGUALDAD Y VIOLENCIA DE GÉNERO. CORTOMETRAJES PREMIADOS DEL CONCURSO

## MIÉRCOLES 13 NOV

**SESIÓN 17:30h / ENTRADA GRATUITA**

**Premio cortometraje alumnado de Navarra**

### EZ ISILDU! (¡NO TE CALLES!)

*Premio al alumnado de 4º ESO IESO Aoiz / Agoitz DBHI. (9')*

**Sinopsis** Nora es nueva en el instituto. Empieza a recibir unos mensajes de un número desconocido y recurre al orientador del instituto a pedir ayuda.

**Premio cortometraje profesorado de Navarra**

### VIDAS

*Premio al Profesorado de la Fundación Ilundain-Haritz Berri*
*Guion: Maite Etxaleku Castaño. (11')*

**Sinopsis** Trata de dos jóvenes que descubren la vida de dos protagonistas de una residencia de personas ancianas. Esta experiencia transformadora les hace conectar con el amor y con la idea de unir dos energías. Jóvenes y mayores dejarán su legado para generaciones futuras. Contaran con el apoyo de un número mayor de jóvenes y de mayores.



EZ ISILDU! (¡NO TE CALLES!)



VIDAS



BISORTZEN TALDEA



PATCHWORK










### Premio cortometraje de entidades sociales

## BISORTZEN TALDEA

*Grupo feminista joven "Bisortzen Taldea" de la Ikastola Jaso (15')*

**Sinopsis** La historia de "Bisortzen Taldea" en Ikastola JASO, donde un grupo de personas jóvenes deciden unirse y crear un grupo de trabajo para ponerse en marcha con el fin de trabajar cuestiones de género en el centro educativo.

### Premio cortometraje creadoras y creadores de Navarra

## PATCHWORK

*De María  Manero Muro (8')*

**Sinopsis** Patchwork está basado en la historia real de Loly. Ella es de Azagra, un pequeño pueblo de la Ribera de Navarra, tierra de costumbres arraigadas, donde ha crecido y ha criado a su familia. Durante los 8 minutos que dura la película, podremos ver una referencia continua al concepto de Patchwork.

### Menciones honoríficas

## POR MÍ, POR TÍ, POR TODAS

*de Olaia Sánchez González (13')*

**Sinopsis** Esperanza está muy emocionada. Tiene muchas ganas de ir a la manifestación del 8 de marzo pero no es fácil asistir a la manifestación cuando trabajas como interna y eres una persona inmigrante sin papeles. Mientras habla con Gloria, la anciana a la que cuida, la manifestación pasa por debajo de la casa...

## HAZLA

*de Txemi Pejenaute. (4')*

**Sinopsis** Él ha disparado miles de veces su cámara y sin embargo nunca ha hecho una foto. Un elemento de la disrupción lo cambia todo y poco a poco comienza a ver por primera vez, a tener una mirada... Hasta que por fin hará su primera foto: ¡Hazla!

## Y... ¿POR QUÉ NO?

*de Alberto Azcona. (12')*

**Sinopsis** A través de distintas entrevistas se va descubriendo a una mujer a través de su experiencia en su relación laboral y formativa. Reflejan sus miedos, su sorpresa e incredulidad, hacia una mujer diferente al resto de personas, con una personalidad arrolladora, una mujer especial y luchadora, que a pesar de sus limitaciones, demuestra que nada hay imposible.



**De 9:00h a 11:30h**

# SESIONES EDUCATIVAS MATINALES 2019

Para alumnado de Enseñanza Media

Las sesiones consisten en la **proyección de películas** para introducir la temática y **generar un debate con el alumnado** a través de la exposición de las personas invitadas para la sesión.

## MARTES 12 NOV / PELÍCULA

### LA MUJER DE LA MONTAÑA

*(Benedikt Erlingsson. Islandia, 101')*

Esta película es un cuento heroico contado como una aventura, sobre una mujer, Halla, que lucha contra la industria local de aluminio que está contaminando su país.

**Interviene**: **Imanol Ustarroz Apezteguia**, colaborador de la organización SumaConCausa

## MIÉRCOLES 13 NOV / CORTOS

### MORDIENDO EL AIRE, KALÍS_ROMÍS: MUJERES GITANAS CAMINANDO HACIA LA IGUALDAD

*(Helena Bayona. España, 13´)*

11 mujeres gitanas hablan de lo que son, de lo que sienten y de lo que quieren ser; así como de su proceso de empoderamiento, haciendo visible una imagen plural y diversa lejos de los estereotipos, no sólo del pueblo gitano, sino también de sus mujeres.

### ROMIPEN *(Helena Bayona. España, 28´)*

Siete mujeres de varias edades y lugares, reflexionan sobre su pasado, presente y futuro y también sobre temas tan actuales como el feminismo y su proceso de lucha como mujeres y como gitanas.

**Interviene**: **Ángela Gabarre**, **Silvia Agüero** y **Yoana Amador** (tres de las protagonistas del documental), y **Carmen de Carlos** colaboradora de Gaz Kalo.

## JUEVES 14 NOV / PELÍCULA

### EL PAN DE LA GUERRA *(Nora Twomey. Irlanda, 93')*

Parvana es una niña de 11 años que vive en Kabul durante el régimen talibán. Tras detener a su padre, deberá transformarse en chico para poder trabajar, dado que las mujeres tienen prohibido ganar dinero, salir solas al mercado, etc.

**Intervienen**: colaboradoras de la Comisión Española de Ayuda a las personas Refugiadas (CEAR Navarra)

# mundua eta giza eskubideak

# XV

## zinema erakusketa



DISEINUA: MAMEN ZUDAIRE

**golem baiona**

**2019ko AZAROAren 11eta 15a artean**

LG NA 2706-2019


Fundación IPES Fundazioa · golem · Fundación FELIPE RINALDI · upna Universidad Pública de Navarra Nafarroako Unibertsitate Publikoa · NOSOLOFILMS · Mugarik Gabe Nafarroa · AMNISTÍA INTERNACIONAL

SUBVENCIONAN / DIRUZ LAGUNDU DUTE

Nafarroako Gobernua Gobierno de Navarra · Ayuntamiento de Pamplona Iruñeko Udala



**AZAROAREN 11n**
**ASTELEHENA**



**20:00etan / 5,00€**

BAKARRIK DAUDEN
ADINGABE ATZERRITARRAK

# FORTUNA

*Germinal Roaux (Suitza, 106’. 2018)*

**SINOPSIA**

**Fortuna** Etiopiako neska bat da, 14 urtekoa, Lampedusara iritsi zenetik familiaren berririk izan ez duena. Beste errefuxiatu batzuekin batera, Suitzako Alpeetan dagoen monasterio batean babes hartu beharko du neguan. Agintarien erantzun baten zain dagoen bitartean, **Kabir** ezagutuko du, beste errefuxiatu bat, eta hartaz maiteminduko da. Harreman zaila izango dute, ezkutukoa, **Kabir** desagertuko den arte.

**GONBIDATUA**
**EIDER JAIME ARIZTEGUI**

Gizarte-langilea eta gizarte-integratzailea da, eta unibertsitate-masterra du esku-hartze sozialean banakoekin, familiekin eta taldeekin (NUP). Migrazioan eta esku-hartze sozialean aditu-titulua du (NUP), eta Nafarroako Arreta Sozialeko Etika Batzordeko kidea da (CEASNA). Ibilbide luzea du esku-hartze sozialean egoera ahulean dauden nerabeekin eta gazteekin, eta prebentzioaren arloan esku-hartzean familiekin.
Egun, ZAKAN UTE ordezkatzen du, gizarte-ekimeneko hiru kooperatibak eratua (Agintzari, Zabalduz eta Kamira). Zehazki, Nafarroan lan egiten du arreta ematen bakarrik dauden haur eta nerabe migratzaileei.

**GERMINAL ROAUX** Lausanan jaio zen, Suitzan, 1975ean. Argazkilari eta zinemagile autodidakta da, eta zuri-beltzean baino ez du egiten lan. 1996az geroztik, kazetari fotografiko moduan aritu da kolaboratzen 10 urtean baino gehiagoan zenbait aldizkaritan, besteak beste, L’Illustré eta L’Hebdo aldizkarietan. Adimen-desgaitasunari buruz egin zuen lehen dokumentala, 2003an, *Des tas de choses*, eta haren ondotik etorri zen *Icebergs* (2007). Bere lehen film luzea, LEFT FOOT RIGHT FOOT, 2013an iritsi zen pantailetara eta sari ugari eskuratu zuen. **FORTUNA**, oraingoz azken film luzea, sari asko jasotakoa da.

**SARIAK**

Kristalezko Hartza film onenari Berlinaleren 68. edizioan (2018), Nazioarteko Epaimahaiaren Sari Handia Berlinaleren 68. edizioan (2018) eta Film Onenaren Zilarrezko Saria Erevango Nazioarteko Zinemaldiaren XV. edizioan (Armenia) (2018), besteak beste.




## AZAROAREN 12n ASTEARTEA



**18:30etan / 3,00€**

TOKIKO ZINEMA NAZIOARTEKO BEGIRADAREKIN

# BORN IN GAMBIA

*Natxo Leuza Fernández (Espainia, 27'. 2018)*

**SINOPSIA**

**Hassan** kalean bizi zen mutikoa da. Anaia aztikeriaz salatu zuten eta bere aurrean bizirik erre. Aitaordeak esaten dio deabrua barnean duela, eta, beraz, ihes egin beharko du, besteek ez hiltzeko. **Hassan**ek grabagailu bat darama soinean beti, bere bizimodua, beste neska-mutiko batzuena eta bere herrialdearena kontatzeko; herrialde ederra, baina tradizio arriskutsuetan ainguratuta dagoena.

**NATXO LEUZA** errealizadore, gidoilari, muntatzaile eta zinemako ekoizpen ondoko lanetan aritzen da. Ibilbide luzea du dokumentalen arloan, eta munduko hainbat herrialdetako proiektu ugaritan egin du lan: Sierra Leona, Benin, Togo, Mauritania, Gambia, Peru, Guatemala, El Salvador, Qatar, Haiti, Alemania, etab.

**GONBIDATUA**
**NATXO LEUZA**, director

**SARIAK**

42 sail ofizialetan parte hartu du, nazioko eta nazioarteko 17 lehiaketatan saritu dute, eta 2020ko Goya sarietarako hautagaia da Film Labur Dokumental Onenaren atalean.



# EL INFIERNO

*Raúl de la Fuente Calle (Espainia, 20'. 2019)*

**SINOPSIS**

**Chennu** 15 urterekin egin zuen lehen delitua: kaleko haurra izatea. Eta infernuan sartu zuten, Pademba Roaden, Freetowneko helduen kartzelan. Infernuan **Sillah** jaunak agintzen du, eta presoek itxaropen oro baztertzen dute. Lau urteren ondoren **Chennu**k ateratzea lortu zuen. Orain, Padembara itzuli nahi du.

**RAÚL DE LA FUENTE** zuzendaria, gidoilaria eta muntatzailea da. UN DÍA MÁS CON VIDA bere film luzea Cannesko Sail Ofizialean estreinatu zuten, eta EFA, Goya eta Platino sariak lortu ditu, animaziozko film luze onena izateagatik, eta Ikus Entzuleen Saria, Zinemaldian. NÖMADAK TX lanak bigarren postua lortu zuen IDFAren Top20 zerrendan, eta Zuzendari Berri Onenaren Saria Guadalajarako Nazioarteko Zinemaldian. Bere lehen film labur dokumentalak, *Minerita* izenekoak, Goya saria jaso zuen eta Oscarretarako shortlistean egon zen.

**GONBIDATUA**
**RAÚL DE LA FUENTE**, director

**SARIAK**

Film Labur Dokumental Onenaren Saria Varsoviako 2019ko Zinemaldian (Warsaw Film Festival).




**AZAROAREN 12n**
**ASTEARTEA**



**20:00etan / 5,00€**

MIGRAZIOA, KULTURA-ANIZTA-SUNA ETA ESKUBIDE SOZIALAK

# UN GATO EN LA PARED

## CAT IN THE WALL

*Vesela Kazakova, Mina Mileva (Bulgaria, 92'. 2019)*

**GONBIDATUA**
**RUBÉN LASHERAS RUIZ**

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Soziologia eta Gizarte Laneko Saileko irakaslea. Bere ikerketa-ildoek berdintasunik ezen eta gizarte-bazterketaren alorrean jartzen dute arreta.

**SINOPSIA**

Brexitaren Londresen, udal-etxebizitzen komunitateko bizimodua larriagotu egingo du gentrifikazioak. **Irina** ama ezkongabea da, jatorriz Bulgariakoa eta arkitekto gisa arrakasta izaten saiatzen dena. Ez du subsidioetatik bizi nahi, bizilagun gehienek egiten duten moduan, eta arrakastarik gabe borrokatuko da, bizilagun horiek sistemaren kontra egiteko konbentzitzeko. Bere paretan katu bat harrapatuta agertzen denean, gatazka hasiko da **Irina**ren familiaren eta bizilagunetako batzuen artean.

**MINA MILEVA** animaziozko zinemako zuzendari-prestakuntza hartu zuen La Cambren, Bruselan, eta bai Sofiako Arte Eszenikoen eta Zinematografikoen Akademia Nazionalean ere. Hamarkada batean baino gehiagoan aritu zen lanean Britainia Handiko animaziozko industrian. **VESELA KAZAKOVA**k antzezpena eta produkzioa ikasi zuen Bulgarian. Bere rol zinematografiko nagusiek Bulgarian eta atzerrian sari ospetsuak irabaztea ekarri zioten. Elkarrekin, film luze dokumental hauek zuzendu dituzte: ZARADI LELIA SNEJE (2008), *U*NCLE TONY, THREE FOOLS AND THE SECRET SERVICE (2014) eta THE BEAST IS STILL ALIVE (2016). **UN GATO EN LA PARED** fikziozko lehen film luzea dute.




**AZAROAREN 13n**
**ASTEAZKENA**



**20:00etan / 5,00€**

ESKUBIDE ZIBILAK ETA POLITIKOAK

# LA DEFENSA, POR LA LIBERTAD

*Pilar Pérez Solano (Espainia, 71'. 2019)*

## SINOPSIA

Espainiako abokatutzaren historia jasotzen duen dokumentala, 1960ko hamarkadaren erdialdetik 1978a arte. Irudi eman gabeak ditu, eta abokatu emakume eta gizon ospetsuen testigantzak. Beren lanbidea duintasunez egiteagatik espetxeratu zituzten, hil egin zituzten, Atocha 55en gertatu zen moduan, gizatasunaren eta ausardiaren eredua izan ziren, eta ideologiak alde batera utzi eta askatasunen eta eskubideen arau bat egiteko gai izan ziren.

**PILAR PÉREZ SOLANO** (Alacant, 1967) zinemako gidoilaria, zuzendaria eta ekoizlea, hogeita bost urtetik gorako eskarmentua duena.
1993an, Canal+ katean hasi zen eta bertan ekoizpeneko zuzendaria izan da hainbat lanetan, besteak beste: ***Lisboa, Faca no Coraçao***, New Yorkeko Jaialdian saritua; ***Poeta en nueva York***, Emmy sarietarako izendatua; eta ***Auster y Wang***, New Yorkeko Jaialdian saritua. 2003tik aurrera, zuzendari- eta errealizadore-ibilbideari ere heldu zion. 2007an, "TRANSIT Producciones S.L." ekoiztetxea sortu zuen. Zuzendari- eta ekoizle-lanean egin dituen azken lanak hauek izan dira: "Murales" dokumentala, lehiaketarako hautatua SEMINCIn, *Tiempo de Historia* atalean, eta New Yorken estreinatua; duela gutxi, LAS MAESTRAS DE LA REPÚBLICA, 2014an film dokumental onenaren Goya saria eskuratu zuena; eta **LA DEFENSA, POR LA LIBERTAD**, 2019an.
Halaber, Zinema Akademiako kidea da, Valentziako Ikus-entzunezkoen Akademiakoa, CIMA elkarteko Zuzendaritza Batzordekoa eta "Mujeres en Dirección" Cuencako Zinemaldiko kolaboratzailea.

## GONBIDATUAK

**PILAR PÉREZ SOLANO**, dokumentalaren zuzendaria, eta **MIKEL BERRAONDO LÓPEZ**. Berraondo aditua da giza eskubideetan, enpresa eta giza eskubideetan, eta herri indigenen eskubideetan. 16 urtetik gora eman ditu nazioarteko hainbat agentzia eta GKErekin lanean, herri indigenen eskubideak babesten. Giza eskubideak babesteko nazioarteko zenbait mekanismotan auzitan ibili da, Panamaren, Argentinaren, Paraguairen eta Kolonbiaren aurka. IPES Fundazioko patronatuko kidea da. Egun, Zabala Innovation Consulting enpresan Berrikuntza Sozialaren saileko zuzendaria da.




**AZAROAREN 14n**
**OSTEGUNA**



**20:00etan / 5,00€**

GURASOEN ESKUBIDEAK, FAMILIA

# LA HIJA DE UN LADRÓN

*Belén Funes (Espainia, 102’. 2019)*

**GONBIDATUA**
**BELÉN FUNES**,
filmaren zuzendaria

**SARIAK**
Greta Fernández, Emakumezko Aktore Onenaren Zilarrezko Maskorra, Donostiako 2019ko Zinemaldian.

**SINOPSIA**
**Sara** bakarrik egon da bizitza osoan. 22 urte ditu eta haurtxo bat, eta bere nahia familia bat osatzea da, anaia txikiarekin eta bere semetxoaren aitarekin. Sararen aitak, **Manuel**ek, urte mordo batean urrun egon eta gero eta kartzelatik atera ondoren, beren bizitzetan berriro agertzea erabakiko du. Sarak badaki, ordea, aita dela oztopo nagusia bere planetan.

**BELÉN FUNES** (Bartzelona, Espainia. 1984) Kataluniako Zinemaren eta Ikus-entzunezkoen Goi Mailako Eskolan eta San Antonio de los Bañosko Zinema Eskolan aritu zen ikasten, eta zinemaren industrian zuzendaritzako laguntzaile moduan hasi zen lanean eta castingeko sailean ekoizpen desberdinetan. Aldi berean, script lanak egiten ere hasi zen. **Isabel Coixet**ek ekoitzi zuen bere lehen film labur profesionala, *Sara a la fuga* (2015), eta Malagako Jaialdian Film Labur Onenaren eta Zuzendaritza Onenaren sariak jaso zituen eta Goya sarietarako izendatu zuten. Bigarren film laburra, *La inútil* (2017), Valladolideko SEMINCIn hautatu zuten eta Gaudí sarietarako film labur onenen artean hautatu zuten. **LA HIJA DE UN LADRÓN**, *Sara a la fuga* film laburreko istorioan eta pertsonaian ideia hartuta, bere lehen film luzea da.




**AZAROAREN 15n**
**OSTIRALA**




**20:00etan / 5,00€**

GERRA SIRIAN

# FOR SAMA

*Waad al-Kateab eta  Edwars Watts (Erresuma Batua 93'. 2019)*

**SINOPSIA**

Emakume bat maitasuna, gerra eta ama moduan duen eginkizuna batzeko borrokatuko da, Siriako gerraren testuinguruan. Waaden istorioak agerian uzten du protagonistak aurrez aurre duen benetako dilema, aukera zail bat egitea egokitzen zaionean: hiritik alde egitea alaba salbu edukitzeko, nahiz eta horrek aldi berean ekarri askatasunaren aldeko bere borroka utzi behar izatea.

**WAAD AL-KATEAB**, dokumentalista saritua. Kazetari hiritar bihurtu zen 2011n, Assaden erregimenaren aurka Siria osoan protestak piztu zirenean, eta 2016ko urtarrilean Alepoko izugarrikeriak dokumentatzen hasi zen Inside Aleppo izenburua zuten film batzuen sailean. **FOR SAMA** bere lehen film luzea da. **EDWARD WATTS**, zuzendarikidea, zinemagile ingelesa, dokumentalak eta film narratiboak egiteagatik ezaguna. Besteak beste, film hauengatik da ezaguna: ESCAPE FROM ISIS (2015), Egungo Gaietarako Emmy 2016 nazioarteko saria eskuratu zuena, THE MEGA BROTHEL (2015) eta **FOR SAMA** (2019), bere azken lana.

**GONBIDATUA**
**JESÚS A. NÚÑEZ VILLAVERDE**

Gatazkei eta Ekintza Humanitarioari buruzko Ikerketen Institutuko zuzendarikidea da (IECAH). Espezialista da segurtasun-gaietan, bakea eraikitzekoetan eta gatazkei aurrea hartzekoetan, arreta berezia jarrita arlo arabiar-musulmanean. Comillas Unibertsitate Pontifikalean Nazioarteko Harremanetako irakaslea da. Espainiako Batzordeko lehendakaria da UNRWAn (Palestinar Iheslarientzako Laguntza eta Lan Bulegoa. Nazio Batuen Erakundea).

**SARIAK** L'Œild'Or saria dokumental onenari, 2019ko Cannesko Zinemaldian.
Epaimahai Handiaren Saria dokumental onenari, 2019ko SXSW zinemaldian.
Dokumental Onenaren Saria, Durbango Nazioarteko Zinemaldiaren 2019ko edizioan

# IPES FUNDAZIOAK ANTOLATUTAKO FILM LABURREN LEHIAKETAREN II. EDIZIOA.

## GIZA ESKUBIDEAK, BERDINTASUNA ETA GENERO-INDARKERIA. LEHIAKETAN SARITUTAKO FILM LABURRAK.

## AZAROAREN 13n ASTEAZKENA

**17:30etan / DOAKO SARRERA**

### Nafarroako ikasleen film laburraren saria

## EZ ISILDU! (¡NO TE CALLES!)

*Saria Agoitz DBHI ikastetxeko 4. DBHko ikasleei. (9')*

**Sinopsia** Nora berria da institutuan. Zenbaki ezezagun batetik bidalitako mezuak jasotzen hasi da, eta institutuko orientatzailearengana jo du, laguntza eskatzeko.

### Nafarroako irakasleen film laburraren saria

## VIDAS

*Saria Ilundain-Haritz Berri Fundazioko irakasleei. Gidoia: Maite Etxaleku Castaño. (11')*

**Sinopsia** Zaharren egoitza bateko bi protagonistaren bizitza ezagutzen duten bi gazteri buruzkoa da. Esperientzia eraldatzaile horrek maitasunarekin eta bi energia batzeko ideiarekin konektatzea ekarriko die. Gazteek eta zaharrek beren ondarea utziko dute etorkizuneko belaunaldientzat. Beste gazte eta zahar batzuen babesa izango dute.


EZ ISILDU! (¡NO TE CALLES!)


VIDAS


BISORTZEN TALDEA


PATCHWORK










### Gizarte-erakundeen film laburraren saria

## BISORTZEN TALDEA

*"Bisortzen Taldea", Jaso ikastolako talde feminista gaztea. (15')*

**Sinopsia** Jaso ikastolako Birsortzen Taldearen istorioa. Bertan, gazte batzuek elkartzea erabaki dute eta lantalde bat sortzea, ikastetxean generoko kontuak lantzeko helburuarekin.

### Nafarroako sortzaileen film laburraren saria

## PATCHWORK

*María  Manero Murorena. (8')*

**Sinopsia** Patchwork lana Lolyren benetako istorioan oinarrituta dago. Loly Azagrakoa da, Nafarroako Erriberako herri txiki batekoa. Ohitura errotuen lurraldea da, eta bertan hazi eta hezi da familiarekin. Filmaren 8 minutuetan, etengabeko erreferentzia egingo zaio patchworkaren kontzeptuari.

### Ohorezko aipamenak

## POR MÍ, POR TÍ, POR TODAS

*Olaia Sánchez Gonzálezena. (13')*

**Sinopsia** Esperanza oso hunkituta dago. Martxoaren 8ko manifestaziora joateko irrikaz dago, baina ez da erraza, barneko langilea eta paperik gabeko immigrantea zarenean. Gloriarekin hitz egiten ari den bitartean, zaintzen duen adineko andrearekin, manifestazioa etxe azpitik igarotzen ari da...

## HAZLA

*Txemi Pejenauterena. (4')*

**Sinopsia** Berak milaka aldiz kliskatu du kamera, baina inoiz ez du argazkirik egin. Disrupzioaren elementu batek dena aldaraziko du, eta pixkana lehen aldiz ikusten hasiko da, begirada bat izaten… Eta azkenean, bere lehen argazkia egingo du: egizu!

## Y... ¿POR QUÉ NO?

*Alberto Azconarena. (12')*

**Sinopsia** Elkarrizketa desberdinen bidez, emakume bat ezagutzen joango gara, laneko eta prestakuntzako harremanean duen esperientziaren bidez. Elkarrizketek bere beldurrak, ezustekoa eta sinesgaiztasuna erakusten dituzte, gainerako pertsonengandik desberdina den emakume batenganako. Ikaragarrizko nortasuna du, emakume berezia eta borrokalaria da, bere mugak gorabehera, ezinezkorik ez dagoela erakusten duena.



9:00etatik 11:30era

# 2019KO GOIZEKO HEZIKETA-SAOIAK

Erdi Mailako Ikasteak

Saioetan, **filmak emango dira**, gaiari sarrera emateko eta eztabaida sortzeko ikasleekin, saiorako gonbidatutako pertsonen azalpenaren bidez.

## AZAROAREN 12AN, ASTEARTEA / FILMA

### LA MUJER DE LA MONTAÑA

*(Benedikt Erlingsson. Islandia, 101')*

Abentura moduan kontatutako ipuin heroiko bat da film hau. Halla izeneko emakume bati buruzkoa da, eta herrialdea kutsatzen ari den aluminioaren toki-industriaren kontra borrokatzen da.

**Hitz egiten ariko da: Imanol Ustarroz Apezteguia**, Suma Con Causa elkarteko kolaboratzailea

## AZAROAREN 13AN, ASTEAZKENA / FILM LABURRAK

### MORDIENDO EL AIRE, KALÍS_ROMÍS: MUJERES GITANAS CAMINANDO HACIA LA IGUALDAD

*(Helena Bayona. Espainia, 13´)*

Direnaz, sentitzen dutenaz eta izan nahi dutenaz hitz egingo dute 11 emakume ijitok. Beren ahalduntze prozesuaz ere ariko dira, estereotipoetatik urrun dagoen irudi plural eta askotarikoa ikusgai eginez, ijito herriaz ez ezik, baita herri horretako emakumeez ere.

### ROMIPEN *(Helena Bayona. Espainia, 28´)*

Adin eta toki desberdinetako zazpi emakumek gogoeta egingo dute beren iraganaren, orainaren eta etorkizunaren gainean, eta egungo gaiak ere izango dituzte gogoetagai, besteak beste, feminismoa eta emakume eta ijito moduan beren borroka-prozesua.

**Hitz egiten ariko dira**: **Angela Gabarre**, **Silvia Agüero** eta **Yoana Amador** (dokumentaleko protagonistetako hiru), eta **Carmen de Carlos**, Gaz Kalo elkarteko kolaboratzailea.

## AZAROAREN 14AN, OSTEGUNA/ FILMA

### EL PAN DE LA GUERRA *(Nora Twomey. Irlanda, 93')*

Parvana 11 urteko neskato bat da, Kabulen bizi dena, talibanen erregimenean. Aita atxilotu ondoren, Parvanak mutil bihurtzeko premia izango du lan egin ahal izateko, emakumeek debekatuta baitute dirua irabaztea, bakarrik joatea azokara…

**Hitz egiten ariko dira**: Iheslariak Laguntzeko Espainiako Batzordeko kolaboratzaileak (CEAR Navarra).